

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### 10/2018 Foru Araua, uztailaren 11koa, foru kargu publikoen jarduna arautzen duena

Arabako Batzar Nagusiek, 2018ko uztailaren 11n egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

10/2018 Foru Araua, uztailaren 11koa, foru kargu publikoen jarduna arautzen duena.

#### ZIOEN ADIERAZPENA

Foru arau honen xedea Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargu publikoak arautzea da. Xede honek bi ildo nagusi dauzka: batetik, arau bakar batera biltzea foru kargu publikoen araubide juridikoari eta estatutu pertsonalari buruzko xedapen guztiak; bestetik, araubide juridikoari helduta, kargu horietan aritzen direnen bateraezintasun, muga eta betebeharrak azaltzea, osorik eta bateratuta, arreta berezia jarriz aplikatzen zaien jokabide kodeari.

Lehenengo helburuari dagokionez kontuan eduki behar da Arabako Lurralde Historikoan diputatuen, goi kargudunen eta behin-behineko langileen araubide juridikoa eta estatutu pertsonala hainbat arakuren bidez eratu direla. Abiaturak ondoko bi hauek izan dira: Arabako Lurralde Historikoaren erakunde antolamendua arautzen duen 1983ko martxoaren 7ko Foru Araua; 52/92 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamenduari eta lege araubideari buruzkoa. Geroztik bi foru arauk disfuntzio batzuk zuzendu dituzte eta lehen Diputatuen Kontseiluaren dekretuen bidez arautzen ziren alderdi batzuk osatu eta finkatu dituzte; hauexek dira: 4/2000 Foru Araua, otsailaren 21ekoa, Arabako Foru Aldundiko eta beraren foru erakunde autonomoetako eta foru sozietate publikoetako goi kargudunen eta behin-behineko langileen erregimen orokorra arautzen duena; 7/2008 Foru Araua, otsailaren 18koa, Arabako Foru Aldundiko Jardueren Erregistroa eta Ondasun eta Interesen Erregistroa arautzen duena. Hala ere, foru kargu publikoen araudian gabeziak egon dira, eta arau honen bidez zuzendu nahi dira.

Esaterako, diputatuen eta goi kargudunen bateraezintasunak direla eta, nahiz eta legezko gaikuntza ezarrita egon 1983ko martxoaren 7ko Foru Arauko 28. artikuluan, bateraezintasun araubidearen inguruko xedapenak barreiatuta eta antolatu gabe daude, eta ez daude osatuta (batzuetan Erkidegoko arautegian osatu behar izan dira).

Egoera nolakoa den ikusirik, argi geratu da ezinbestekoa dela arau barreiarra gainditzea, batez ere kontuan hartuta hainbat alderdi osatu gabe eta zaharkituta daudela. Hori dela eta, foru kargu publikoaren kontzeptua zabaldu behar da kontrol eta bermeen sisteman sartzeko foru sektore publikoko karguetan ari diren pertsona guztiak eta beraien araubidea ulertzen eta ezagutzen lagundu behar da, eta horretarako, Aldundiaren oinarrizko araudia errespetatuz, arau tresna bakar batera bildu behar dira aurrean aipatutakoen estatutu pertsonalari buruzko xedapenak eta beraien jokabide kodeari, bateraezintasun araubideari, interes gatazkei eta jardueren eta ondasun eta interesen erregistroei buruz ezarritako guztia, foru kargu publikoen araubide juridikoaren ikuspegi artikulatu, bakar eta osoa finkatzeko, eta foru antolamendu juridikoa errazteko eta sendotzeko.

Gainera, Eusko Legebiltzarrean onartutako ekainaren 26ko 1/2014 Legeak, kargu publikodunen jokabide kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituenak, 7/2008 Foru Arauko bigarren xedapen gehigarrian ezartzen den agindua bete du: diputatuen eta goi kargudunen bateraezintasunak eta interes gatazkak arautzen dituen foru arauaren proiektua prestatzea.

Horri gehitu behar zaio kargu publikoen estatutu bateratu eta osoa ezartzea (arau honen xedea) gobernu onaren ezarpenaren ondorio logikoa dela. Bada, hori guztia kontuan harturik, guztiz agerikoa da funtsezkoa dela botere publikoek eta beraien titularrek zerbitzari publikoen jardunaren gardentasuna sendotzea. Beraz, foru kargu publikoen araubide juridikoa finkatu behar da eta araudia herritarren eskaera berrietara (gardentasuna eta printzipio etikoen arabera jokatzeko) moldatzeko behar diren aldaketa guztiak egin behar dira.

Gainera, gauza jakina da mugak eta oztupoak daudela emakumeek gizartean parte hartzeko eta badakigu sustatu beharra dagoela emakumeek gizarte demokratikoaren garapenerako ekarpenak egitea gizonen pare. Hori guztia kontuan edukita, foru arau honetako neurri guztiek zeharkako helburu hau dute: gizonetzko eta emakumezko herritarrek gizartean modu ekitatiboan parte hartzea sustatzea eta bermatzea. Horrenbestez, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunerakoak, 15. artikuluan xedatzen duena eta otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoak, 3. eta 23. artikuluetan xedatzen duena betetzeko, arau hau eratzeko emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa aplikatu da, gizonetzko eta emakumezko herritarrek gizartean modu ekitatiboan parte hartzea sustatzeko.

Horrenbestez, foru kargu publikoen arautegi eguneratua finkatzeko asmoarekin, Euskadiko Autonomia Estatutuko 373.a) artikuluan emandako eskumen eskusiboa erabiliz (foru organoen erakundeen antolamenduari, araubideari eta jardunbideari buruzko eskumena), foru arau hau onartzen da foru kargu publikoak arautzeko. Hauxe da foru arauaren egitura: sei kapitulu, bost xedapen gehigarri, hiru xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen. Azken xedapenetako azkenak ezartzen du foru araua ALHAOn argitaratutakoan jarriko dela indarrean.

I. kapituluaren arauaren xedea eta aplikazio eremua zehazten dira. Aplikazio eremua foru kargu publikoa da, hain zuzen ere foru araudian berria den kontzeptua, ohiko goi karguarena (4/2000 Foru Araua, otsailaren 21ekoa) baino zabalagoa, erabakiak hartzearekin lotutako egitekoetan aritzen diren hautapen eta izendapen politikoko postuetako langileak hartzen baititu, kategoriatuak, hain zuzen ere: Diputatuen Kontseiluko kideak, Arabako Foru Aldundiko eta beraren erakunde autonomoetako eta foru sozietate publikoetako goi kargudunak, eta foru sektore publikoko gainerako zuzendaritza postu guztietan ari diren langileak.

II. kapituluaren Foru Gobernuak kideen eta goi kargudunen estatutu pertsonala arautzen da. Aurreko araudiarekin alderatuta, ez da egin aldaketa handirik, kargua utzitakoan jasotzen izan den kalteordaina ezabatu bada ere.

III. kapituluaren foru kargu publikoetan aritzen direnen jokabide kodearen printzipio orokorrak ezartzen dira eta IV. kapituluaren beraien interes gatazken eta bateraezintasunen araubidea finkatzen da. Batetik, arau orokorra kargudunek dedikazio eskusiboa edukitzea izango da; arauan bertan bateragarritzat jotzen diren jarduera publiko eta pribatu batzuk bakarrik salbuetsiko dira. Horrez gainera mugak finkatzen dira sozietateen partaidetzak edukitzeko eta kargua utzitakoan jarduera ekonomiko pribatuetan aritzeko, eta ondare ondasunak eta eskubideak aitortu beharra ezartzen da. Muga horien eta betebeharraren helburua arau honen aplikazio eremuko karguen egiteko publikoetan aritzen direnen objektibotasuna eta inpartzialtasuna bermatzea da.

Aurrekoaren osagarri, V. kapituluaren arauan ezartzen diren betebeharren kudeaketa eta kontrola arautzen dira. Beste alde batetik, VI. kapituluaren arauan ezartzen dena betetzen ez denean ezarriko diren zehapenen araubidea finkatzen da: nolako arau haustek gerta daitezkeen, nolako zehapenak ezarriko diren, nolako den zehapenak ezartzeko prozedura, eta zer organok duten zehapenen instrukzioa egiteko eta ebazpenak emateko eskumena.

Azken xedapenetatik hirugarrena, laugarrena eta bosgarrena dira aipagarrienak. Hirugarrenean kargu publikoetara foru lanpostu publikoetatik heltzen direnei aplikatuko zaiena ezartzen da, laugarrenean behin-behineko langileen araubidea ezartzen da (orain arte goi kargudunen arautegiaren barruan egon da) eta bosgarrenean goi mailako foru kargudun zerga aitortpenak arautzen dira.

Foru arau honen izapideetan kontuan eduki dira araupetze onaren printzipioak, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, ezartzen dituenak eta maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozedura, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenak, I. eranskineko 3. artikuluan biltzen dituenak. Hala, aurrean azaldutako aurrekarietan behar bezala justifikatzen da foru kargu publikoen araudi berriaren beharrezan. Gainera, neurrizko arau aldaketa da, gutxienez mugatzen delako lortu nahi den helburua lortzeko: foru kargu publikoen araubide juridikoaren ikuspegi artikulatu, bakar eta osoa finkatzea.

Segurtasun juridikoaren printzipioa ere bermatzen da, zeren eta aski arrazoitzen baita nola ordenamendu juridikoan sartzea hala hura ematen duen organoaren gaikuntza.

Efizientziaren printzipioari gagozkiola, proposatzen den araudiak, duen izaera dela eta, ez dakarkie administrazioari ez administrazio karga osagarririk ez premiagabekorik, ez baliabide publikoen kontsumo handiagorik. Gainera, arau honi esker aurrera egingo dugu geure buruari ezarritako betebeharrak honetan: kargu publikodunek aginduta dauzkaten eginkizun publikoetan gardentasuna, eraginkortasuna eta arduraldia bermatzea.

Orobat, arau honen proiektua prestatzeko lanetan gardentasunaren printzipioa bermatu da, behar bezala bete baitira aurreko kontsulta publikoaren izapidea eta entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea. Nolanahi ere, onartu bezain laster ALHAOn argitaratzeko aginduko da.

## I. KAPITULUA

### XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

#### **1. artikulua. Xedea**

1. Foru arau honen xedea foru kargu publikoen araubide juridikoa ezartzea da.
2. Horrez gainera foru arau honen bidez foru kargu publikoetan aritzen direnen jokabide kodearen printzipioak ezartzen dira; printzipio horien guztien ardatza herritar guztien defentsa da.

#### **2. artikulua. Aplikazio eremu subjektiboa**

1. Arau honen ondorioetarako hauexek dira foru kargu publikoak:
  - a) Diputatu Nagusia eta Diputatuen Kontseiluko gainerako kide guztiak.
  - b) Arabako Foru Aldundiko eta beraren erakunde autonomoetako eta foru sozietate publikoetako goi kargudunak.
  - c) Zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoetako eta foru sektore publikoko fundazioetako eta partzuergoetako zuzendaritza postuetan ari diren pertsonak.

2. Foru kargu publikoetan aritzen direnen jokabide kodearen printzipio orokorrak, foru arau honetako III. kapituluaren ezartzen direnak, ondoko hauei ere aplikatuko zaizkie, foru kargu publiko ez izan arren: Diputatuen Kontseiluak (edo beraren organo eskudunak, foru sozietate publikoetako karguen kasuan) izatez eta kapitalez nagusiki pribatuak diren erakundeetako edo Merkataritza Kodeko 42. artikulua araberaren arabera hainbat administrazio publikoren edo beraien sektore publikoen kontrolpean dauden erakundeetako zuzendaritza edo administrazio karguetarako izendatzen dituenak.

#### **3. artikulua Foru kargu publikoen katalogoa**

1. Foru Gobernuak arau honen aplikazio eremuko kargu publikoen katalogoa onartuko du. Onarpenean kargudun bakoitza nor den, zenbat kargu publiko dauzkan eta bakoitzerako noiz izendatu zuten zehaztuko da.

2. Kargu publikoen katalogoak ez du edukiko izaera eratzalea; beraz, ez da beharrezkoa izango kargu publiko bat katalogoan egotea arau hau aplikatu ahal izateko.

3. Foru kargu publikoen katalogoa etengabe eguneratuko da; katalogoa arteztea eta beraren inguruko kudeaketa administratiboa Aldundiaren Idazkaritza Orokorreko Zerbitzuaren egitekoak izango dira.

4. Foru kargu publikoen katalogoa eskura izango dute herritar guztiek Arabako Foru Aldundiaren web orriaren bidez.

## II. KAPITULUA

### FORU KARGU PUBLIKOEN ARAUBIDE JURIDIKOA

#### *Lehen atala*

#### *Diputatuen Kontseiluko kideak*

#### **4. artikulua Eskumenak, izendapena eta kargua uztea**

1. Diputatu Nagusiari eta foru diputatuei Arabako Lurralde Historikoaren erakunde antolamendua arautzen duen 1983ko martxoaren 7ko Foru Arauan eta abenduaren 18ko 52/92 Foru Arauan, Arabako Foru Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta lege araubideari buruzkoan, eskumenez, izendapenez eta kargu uzteaz ezartzen dena aplikatuko zaie.

2. Printzipio modura, foru diputatuak izendatzeko kontuan hartuko da gizonak eta emakumeak orekatuta egotea.

#### **5. artikulua Tratamendua**

Protokoloan, Diputatuen Kontseiluko kideen tratamendua jauna edo andrea izango da, karguaren izenaren ondoren. Karguari dagozkion ohoreak jasotzeko eskubidea edukiko dute.

#### **6. artikulua. Erantzukizuna**

1. Diputatu Nagusia eta foru diputatuak justizia epaitegietara eraman ahal izango dira karguan jardutean egindako ekintzengatik edo omisioengatik erantzukizun zibila edo penala duten ebazteko; horretarako izapideak egiteko prozedura arrunta aplikatuko da.

2. Batzar Nagusiek ekintza zibil edo penalak abiarazteko ezinbestekoa izango da aurretik espedientea izapidetzea eta pertsona interesduna entzutea.

#### **7. artikulua. Ordainsarien araubidea**

1. Diputatuen Kontseiluko kideen ordainsariak publikoak izango dira, gardentasunaren araudian ezartzen den bezala, eta aldian-aldian aplikatu beharreko araudian ezartzen denarekin bat etorri finkatuko da, Lurralde Historikoko aurrekontuan ezartzen diren mugen barruan.

2. Gainera, administrazio publikoen zerbitzuan lan egindako aldi konputagarriei dagozkien antzinasun ordainsariak ere jasoko dituzte (baldintzak eta kopuruak foru funtzionarioenak izango dira).

#### **8. artikulua. Gizarte babeseta eta gizarte onurak**

1. Karguaz jabetzen direnetik Diputatuen Kontseiluko kideak Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartuko dira, aurretik egon diren araubidea edo gizarte babeseko sistema gorabehera. Bidezko enpresa edo korporazio kuotak Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorren kontura ordainduko dira.

Hala ere, zerbitzu aktiboan ari den karrerako funtzionario bat Diputatuen Kontseiluko kide izendatu eta ondoren zerbitzu berezien administrazio egoera esleitzen bazaio, egoera horretan dagoen artean karrerako funtzionario gisa zerbitzu aktiboan ari izan den aldian eduki duen gizarte babeseko araubide bera aplikatuko zaio, eta eskubide eta betebeharrak edukiko

ditu. Arabako Foru Aldundiak ordaindu behar ditu kotizazioak; horrez gainera kasuan kasuko araubidean pertsona enplegatzaileari edo administrazio publikoari dagozkion betebeharrak hartu behar ditu.

2. Diputatuen Kontseiluko kideek ez dute edukiko ez pentsiorik ez pentsio osagarririk jasotzeko eskubiderik, Gizarte Segurantzaren sistemakoetatik aparte.

3. Diputatuen Kontseiluko kideek foru langileen gizarte onurak gozatzeko eskubidea edukiko dute. Horretarako, kontuan izango da Arabako Foru Aldundiko edo horren erakunde autonomo edo sozietate publikoetako langile finko diren ala ez; hau da, karrerako funtzionario edo lan kontratupeko langile finko direnek karrerako funtzionarioen prestazio berak edukiko dituzte eta gainerakoek bitarteko funtzionarioei edo aldi baterako langileei dagozkienak.

4. Diputatuen Kontseiluko kideei bizitza eta istripu aseguruak egingo zaie Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontuen kargura bai eta dagozkien erantzukizun zibileko aseguruak ere.

#### *Bigarren atala*

*Arabako Foru Aldundiko eta beraren erakunde autonomoetako eta foru sozietate publikoetako goi kargudunak*

#### **9. artikulua. Nortzuk diren Aldundiko goi kargudunak**

1. Aldundiko goi kargudunak dira Diputatuen Kontseiluak eta foru sozietate publikoen administrazio kontseiluek Foru Aldundian edo foru erakunde autonomo edo sozietate publikoetan zuzendaritza eta goi kudeaketan aritzeko izendatzen dituzten pertsonak. Foru Aldundiko egiturako zuzendaritza aritzeko izendatzen direnak zuzendariak izango dira eta foru erakunde autonomo edo sozietate publikoetan aritzeko izendatzen direnak zuzendariak edo zuzendari kudeatzaileak.

2. Arabako Foru Aldundian zuzendari lanetan dihardutenek beren gain har dezakete erakunde autonomoen lehendakaritza edo zuzendaritza, eta haien administrazio organoetako kide izan daitezke. Halaber, Foru Aldundiak partaidetza daukan merkataritza sozietateen administrazio organoetako kide ere izan daitezke, eta hauetan kontseilari eskuorde jardun dezakete administrazio kontseiluak esleitzen dizkien eskumenekin.

#### **10. artikulua. Aldundiko goi kargudunen kopurua**

Aldundiko goi kargudunen kopurua Foru Aldundiak adieraziko die Batzar Nagusiei agintaldi bakoitzaren hasieran.

#### **11. artikulua. Izendapena eta kargua uztea**

1. Aldundiko goi kargudunen zerbitzu harremanak izendapen erabakian adierazten den egunean hasiko dira eta kargua uzteko agintzen duen erabakian adierazten den egunean amaituko dira. Egunik berariaz adierazten ez bada, erabakiak ALHAOn argitaratu ondoko egunean sortuko ditu ondorioak. Hori gorabehera, bidezkoa denean, erabakia Merkataritza Erregistroan inskribatu beharko da.

2. Printzipio modura, Aldundiko goi kargudunak izendatzeko kontuan hartuko da gizonak eta emakumeak orekatuta egotea.

#### **12. artikulua. Ordainsarien araubidea, gizarte babesak eta gizarte onurak**

1. Aldundiko goi kargudunei foru araudian Diputatuen Kontseiluko kideen ordainsariez, gizarte babesaz eta gizarte onurez ezartzen dena aplikatuko zaie.

2. Foru sozietate publikoetako zuzendarien eta zuzendari kudeatzaileen ordainsariak ezin dira izan Aldundiko eta beraren erakunde autonomoetako gainerako goi kargudunenak baino handiagoak (salbuespena: hirugarren xedapen gehigarriko 2. idatz zatiko kasua).

**13. artikulua. Eskumenak eta egitekoak**

1. Aldundiko zuzendaritza postuetan ari direnei abenduaren 18ko 52/92 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta lege araubideari buruzkoak, beren eskumenez eta egitekoez ezartzen dena aplikatuko zaie.

2. Nolanahi ere, sailen egitura organikoa ezartzen duten dekretuetan, egitekoak zehazteaz gainera, finkatu ahal izango da nola hartuko duten parte erakunde autonomoetako zuzendariak eta zuzendari kudeatzaileek erakundea atxikita dagoen sailaren gaietan.

*Hirugarren atala*

*Beste foru kargu publiko batzuk*

**14. artikulua. Izaera, eskumenak, estatutu pertsonala, izendapena eta kargua uztea**

1. Foru arau honetan xedatzen dena ez ezik, 2. artikuluko c) idatz zatian adierazten diren foru kargu publikoetan ari direnei berariazko araudian beren eskumenez, estatutu pertsonalaz, izendapenez eta kargu uzteaz ezartzen dena ere aplikatuko zaie.

2. Kargu hauetan ari direnen ordainsariak ezin dira izan Aldundiko eta beraren erakunde autonomoetako gainerako goi kargudunenak baino handiagoak.

**III. KAPITULUA****FORU KARGU PUBLIKODUNEN JOKABIDE KODEA  
ZUZENTZEN DUTEN PRINTZPIO OROKORRAK****15. artikulua. Printzipioak eta baloreak**

1. Arau honen ondorioetarako hauxe da zintzotasuna: foru kargu publikodunek beti jokatzeko prestutasunarekin, inpartzialtasunarekin eta objektibotasunarekin, esparru juridikoari eta herritar guztiei begirunea dietela, inoiz ere huts egin gabe.

2. Foru kargu publikodunek gardentasunarekin bete behar dituzte beren egitekoak. Gainera, ahaleginak egingo dituzte gardentasuna beren erakundean edo sailean ezartzeko, eta gobernu irekia, datuak berriro erabiltzea eta administrazio elektronikoa sustatuko dituzte.

3. Foru kargu publikodunek lehen aipatutako baloreen eta printzipioen arabera jardun behar dute beren egitekoetan, bai gizabanako legez, bai erakundearen izenean herritarren aurrean ari direnean, ondoko artikuluetan arautzen den bezala.

**16. artikulua. Erakunde kalitatearen printzipioak**

Foru kargu publikodunek:

1. Ahaleginak egingo dituzte baliabide publikoak eraginkortasunarekin eta efizientziarekin erabiltzeko, zerbitzu publikoaren kalitatea eta iraunkortasuna bermatzea lortzeko.

2. Beren egitekoetan lehentasuna emango diete ikuspegi estrategikoari eta plangintzari, aldeztatik prestatzeko sortuko diren arazoak eta erronken konponbideak.

3. Beren erakundeetan eta atxikita dauden sailak ematen dituen zerbitzuetan sormena eta berrikuntza sustatzen dituen jardunbidea ezarri eta bultzatuko dute. Jardunbide horretan ezinbestekoa izango da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.

4. Foru sektore publikoa profesionalizatzen eta ondo egindako lana aintzatesten lagunduko duten karrera eta gaikuntza politikak eta programak sustatu eta bermatuko dituzte.

5. Ahaleginak egingo dituzte estrategiak, helburuak eta baliabideak ondo uztartzeko erakundearen egiturako goi zuzendaritzako maila politikoen eta zuzendaritza mailen eta maila ertainen artean, bai eta erakunde gainerako langileen artean ere.

6. Karguaren berezko egitekoetan etengabe saiatuko dira saileko edo unitateko prozesuen emaitzak, produktuak eta zerbitzuak hobetzen eta pertsonen lanbide gaitasunak garatzen.

**17. artikulua. Herritarrekiko harremanetarako eta gobernantza onerako printzipioak**

Foru kargu publikodunek:

1. Jokabidearen irizpide nagusitzat pertsoneri begirunea erakustea eduki behar dute. Horrez gainera herritarrekin gizalegez jokatu behar dute eta ezin dira sartu arerio politikoen bizitza pribatuan.

2. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu behar dute eta berdinduz jokatu behar dute egoera berean dauden pertsona guztiak, bereizkerian erori gabe.

3. Kudeaketa publikoaren ardatzean herritarrak ipini behar dituzte eta konpromisoa hartu behar dute etengabe hobetzeko herritarrei ematen zaizkien informazioa, arreta eta zerbitzuak.

4. Herritarrei lagundu behar diete beren eskumeneko zerbitzu publikoen funtzionamenduaren inguruko informazioa jasotzeko eskubidea erabiltzen, legeek ezartzen dituzten mugei lotuz, eta bermatu behar dute herritarren eskaera, kexa eta erreklamazioei azkar eta eraginkortasunarekin erantzuteko mekanismoak daudela.

5. Herritarrek politika publikoen diseinuan eta ebaluazioan parte hartzea eta laguntzea sustatu behar dute. Horretarako eskuko dituzten baliabide guztiak erabili behar dituzte, are telematikoak ere, demokrazia partizipatiboan aurrera egiteko.

6. Honako hauek sustatu behar dituzte: Aldundiaren langileei euren lana burutzea eta herritarrei informazioa eta zerbitzu publikoak eskuratzea errazten dieten bitartekoak (estatistikak, datu baseak, lineako gobernu atariak etab.) sortzea, bitarteko horien kalitatea hobetzea eta beraien erabilera partekatzea.

7. Administrazioa abegitsua eta adikorra izatea bultzatu behar dute, eta horretarako administrazio harremanetan erabiltzen den hizketa argia edo nornahik ulertzeko modukoa izatea lortu behar dute, prozedurak erraztu eta azkartu behar dituzte, zerbitzu elektronikoak abiarazi behar dituzte eta arauak eta erregulazioak hobetu behar dituzte.

8. Herritarren datu pertsonalak babestuta egotea bermatu behar dute, eta dokumentu ofizialak behar bezala sailkatzea, erregistratzea eta artxibatzea ere bai. Horrez gainera, herritarrek foru sektore publikoaren esku dauden beren datu pertsonalak ezagutzeko eta eguneratzeko eskubidea dutela onartu behar dute.

9. Interes taldeen parte hartzea eta haiekiko harremanak sustatu behar dituzte, helburua taldeok ezagutzak eta berrikuntzak zabaltzeko politika publikoen diseinuan esku hartzea dela. Horretarako harremanak eta elkarrizketa lehenesten dituen administrazioa bultzatu behar da, herritarrak eta eragile ekonomiko, sozial eta kulturalak kontuan hartu eta zer pentsatzen duten galdetzen dietena, eta elkartegintzarako eta boluntario zibikoen lanerako bideak errazten dituen.

10. Herritarrek beren hizkuntza eskubideak erabiltzeko modua dutela bermatu behar dute; horretarako arreta berezia ipini behar dute euskaren normalkuntzaren eta erabileraren sustapenean.

11. Kultura ondarearen eta ingurumenaren babesa bultzatu behar dute beren eskumeneko esparruan.

**18. artikulua. Printzipio etikoak eta jokabide printzipioak**

1. Printzipio etikoak:

a) Ordenamendu juridikoa erabat errespetatzea, eta jarduna gorengo baloreen mendean jartzea: askatasuna, justizia, berdintasuna eta askotarikotasun politikoa.

b) Orientabide estrategikoaren ardatz bakarrak herritar guztien interesak eta onura izatea, eskumenak erabiltzean Lurralde Historikoarekin leial jokatzeko eta eraginkortasunaren, efizientziaren, arduraren eta neutraltasunaren printzipioak errespetatzea.

c) Inpartzialtasunarekin jokatzea, alde batera utzita printzipio honekin bat ez datozen interes pertsonal, familiar, korporatibo, klientelar eta bestelako guztiak.

d) Norberaren eta erakundearen erabakien eta jarduketan erantzukizuna onartzea, legez eska litezkeenez gainera.

e) Jardun publikoaren ardatzak kudeaketaren gardentasuna eta herritarrekiko hurbiltasuna izatea.

f) Kargu publikoaren interesekin gatazka ekar lezaketan obligazio ekonomikorik ez hartzea, eta ondorio bereko finantza eragiketarik ez negozio juridikorik ez egitea.

g) Karguaz baliatuta inolako pribilegiarik ez bidegabeko onurarik ez lortzea.

h) Ez laguntzea norberari edo senide edo adiskide edo ezagun bati onura ekar liezaiokeen administrazio izapiderik ez prozedurarik azkartzen ez burutzen, ez eta horrek inori kalte egin liezaiokenean ere.

i) Egitekoetan jardutean eskuratzen dituzten datuak eta informazioak isilpean eta gordean edukitzea, ez agintaldian ez kargua utzitakoan ez erabiltzea eta inori ez ematea, ez beren onurarako ez beste batzuenarako, ez eta herritarren interesen kalterako ere.

## 2. Jokabide printzipioak:

a) Egitekoetan onustean aritzea, erabat inplikaturik eta zerbitzu publikoan buru-belarri, agindutako xedeetarako baino ez, ezarritako bateraezintasun araubidea zorrotz betez.

b) Norberaren karguan eta eskumenetan aritzean, jardun publikoan zein pribatuan, ordezkatzeko duten edo lanean ari diren erakundearen ospea, duintasuna eta irudia hobetzen laguntzea.

c) Esleitutako baliabide publikoak prestutasunarekin erabiltzea, eta eraginkortasunarekin eta soiltasunarekin kudeatzea; baliabideok norberaren onurarako ez erabiltzea, ez eta senideen edo hurkoen onurarako ere, eta postuari esleitutako baliabide eta ondasun publikoak zaintzea eta artatzea.

d) Inpartzialtasunaren, zintzotasunaren eta objektibotasunaren printzipioak errespetatzea, irizpide lokabeari eutsiz eta norberaren interesak alde batera utziz; alderdi politiko baten organo exekutibo edo zuzendaritza organo bateko kidea izateak ezin du eraginik izan jardunean, ez eta ezarritako egitekoak gauzatzeko lanak eragotzi ez moteldu ere. Gainera, ezin dute parte hartu erabateko objektibotasunarekin jardun ezin duten gaietan.

e) Egitekoak ahalik ondoen eta eraginkortasun handienarekin burutzeko jartzen diren baliabideak behar bezala erabiltzea, baliabide publikoak austeritatearekin administrazioa, eta kargu publikoetan nagusi izan behar den duintasuna narriatu lezakeen jarduketarik ez egitea.

f) Kargua dela eta esleitutako ordezkari eta protokolo gastuak behar bezala eta neurritz egitea. Foru sektore publikoko gobernukideek eta goi kargudunek eskubidea edukiko dute zerbitzua dela eta egin behar dituzten gastu guztiak ordaintzeko, frogagiria erakutsiz gero. Ez dute edukiko kreditu txartelik horrelako gastuetarako.

g) Gizarte harremanetan adeitasuna dela bide ohikoak direnak ez beste opari, mesede eta zerbitzu onuragarri guztiak errefusatzeko, eta egitekoetan jardutea eragotz litzaketan maileguak eta bestelako prestazio ekonomiko guztiak ere bai. Garrantzi instituzionala edo balio handia duten opariak foru ondarearako izango dira, otsailaren 23ko 5/1998 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren ondarearenak, ezartzen duenarekin bat etorritik.

h) Herritarrei eskatzen duten informazioa helaraztea, ordenamendu juridikoan ezartzen diren mugak kontuan hartuz.

i) Herritarrekin abegitsu jokatzeko eta aurkeztu dituzten eskaerei, idazkiei eta erreklamazioei erantzutea.

j) Erabakien eta egintzen erantzukizuna onartzea; karguari dagozkion kontrolak onartzea eta jardunak zein jardun ezak dakartzan ondorioei aurre egitea. Halaber, agintaritzza eta erakunde eskudunei jakinaraztea ezagutzen dituzten irregulartasun guztiak, eta horrelakoetan haiekin lankidetzan aritzea.

k) Hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiltzea.

#### **19. artikulua. Gobernantza Onerako Kode Etikoa**

1. Legegintzaldi bakoitzaren hasieran (hau da, Diputatuen Kontseilua eratzen denetik lau hilabete pasatu baino lehen) Diputatuen Kontseiluak gobernantza onerako kode etikoa berretsi edo onartuko du; kode horretan aurreko artikuluetan ezartzen diren printzipioak txertatu eta garatuko dira: erakunde kalitaterako printzipioak, herritarrekin aritzeko printzipioak, eta printzipio etikoak eta jokabide printzipioak. Gainera, kodearen jarraipena egiteko eta hura ebaluatzeko sistema ezarriko da.

2. Kodea onartu baino lehen hura aplikatzen den karguetarako izendatzen diren pertsonak berari atxikitza joko dira, baldin eta ALHAOn argitaratzen denetik hamabost egun pasatu baino lehen berariaz adierazten ez badute atxikitzearen kontra daudela. Kodeari ez atxikitzeak kargua kentzea ekarriko du berehala.

Gainerako kasuetan, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargu publiko baterako izendatzeak berekin ekarriko du izendapenetik bertatik modu automatikoan kode honi atxikita geratzea.

3. Arabako Lurralde Historikoko foru-sektore publikoko gobernuko kideen eta goi karguen Etika Publikoko Batzorde bat izango da, zeinak Kode honen betetzea zainduko duen.

Batzorde hori osatuko dute foru aldundiko bi goi karguk eta etikarekin, zuzenbidearekin edo gobernantzarekin lotutako arloetan esperientzia, eskarmentua eta prestigio profesionala duten bi pertsonak, zeinak Foru Aldundiak izendatuko dituen. Halaber, idazkari-labak egingo ditu Foru Aldundiko funtzionario batek, ahotsarekin baina boto barik.

### IV. KAPITULUA

#### FORU KARGU PUBLIKODUNEN INTERES GATAZKEN ETA BATERAEZINTASUNEN ARAUBIDEA

#### **20. artikulua. Interes gatazka zer den**

1. Foru kargu publikodunek objektibitatearekin jardungo dute Arabako Lurralde Historikoen interesen alde, interes gatazketan erori gabe.

2. Kargu publiko batean ari den pertsona interes gatazkan dago parte hartu behar duenean aldi berean berari ezarritako eginkizunari lotutako interes orokorra edo publikoa eta beraren interes pertsonalak (ekonomikoak zein lanekoak) biltzen diren gaien inguruko erabakietan.

Hauexek dira interes pertsonalak:

a) Kargudunaren beraren interesak.

b) Interes familiarrak, hain zuzen ere ezkontidearenak (edo kargudunarekin ezkontzaren antzeko afektibotasun harremanean bizi den pertsonarenak) eta ahaideenak (laugarren gradura arteko odol ahaideak eta bigarren gradura arteko ezkontza ahaideak).

c) Kargudunak ebatzi gabeko auziren bat daukan pertsonen interesak.

d) Kargudunaren adiskide min diren pertsonen interesak eta harekin areriotasuna nabarmen dutenenak.

e) Izendapenaren aurreko bi urteetan kargudunarekin lan edo lanbide harremanak eduki dituzten pertsona juridiko zein erakunde pribatuen interesak.

f) b) letran aipatzen diren ahaideek lan edo lanbide harremanak dauzkaten pertsona juridiko zein erakunde pribatuen interesak, baldin eta zuzendaritzan, aholkularitzan edo administrazioan badihardute.

### **21. artikulua. Abstenitu eta inhibitu beharra**

1. Administrazio prozedura erkidea arautzen duen araudian ezarritako kasuetan ez ezik foru kargu publikodunek honako hauetan ere ezin dute esku hartu: interes pertsonalak nahasten edo bultzatzen diren jarduera, erabaki eta ekimenetan.

2. Halaber, ezin dute parte hartu enpresa, sozietate eta erakunde jakin batzuen interesak ukitzen dituzten gaietan, ez gai horien inguruko erabakietan ere: zerbitzu harremanak hasi aurreko bi urteetan karguduna edo beraren ezkontidea edo ezkontzaren antzeko afektibotasun harremanean bizi den pertsona edo bigarren gradura arteko odol ahaideren bat edo laugarren gradura arteko ezkontza ahaideren bat edo kargudunarekin interes partekatuak dauzkan hirugarren pertsonaren bat zuzendaritza edo gobernu organoetan aritu diren enpresa, sozietate eta erakundeak.

3. Abstenitu beharra behar bezala kontrolatzeko, foru arau honetan arautzen diren jardueren aitortpenak egin behar dituzte.

4. Abstentzioa idatziz egingo da, eta denboraz eta formaz ziurtatu beharko du abstentzioa eragin duen gaiaren inguruan eztabadaitzen edo erabakitzen ari den organoko idazkari-lanak egingo dituen pertsonak, edo, halakorik ezean, Arabako Foru Aldundiko Idazkaritza Nagusiak. Halaber, egiaztagiri hori bidali eta jakinarazi beharko da emititu eta gehienez bost egun balioduneko epean, Arau honen 33. artikulua aipatzen duen kudeaketa-organoaren aurrean.

5. Foru kargu publikodunak abstenitu beharra betetzen ez badu, atxikita dagoen saileko buruak edo izendatu zuen organoak inhibitzeko agindu behar dio, iritzia azaltzeko aukera eman ondoren. Abstenitu beharra daukan kargu publikoduna Diputatuen Kontseiluko kidea bada, agindua Diputatu Nagusiak eman beharko dio, Gobernuari ohartarazi ondoren. Inhibitzeak berekin ekarriko du ordenamenduan arautzen diren ordezkotza edo ordezpen mekanismoak abian jartzea.

6. Espediente edo prozedura batean interesa duten pertsonak hura izapidetzeko, instruitzeko edo ebazteko eskumena daukan kargu publikoduna errekusatzea sustatu dezakete abstenitzeko ezarritako kasu berberetan, administrazio prozedura erkidearen araudian ezartzen den prozedurarekin bat etorritik.

7. Abstenitu beharra eduki arren abstenitzen ez diren foru kargu publikodunek administrazio erantzukizuna izango dute.

### **22. artikulua. Dedikazio eskusiboa**

1. Foru kargu publikodunek dedikazio eskusiboarekin beteko dituzte beren eginkizunak. Ezin izango dute aldi berean jardun foru kargu publikoan eta merkataritza, lan edo industria arloko postu, kargu, ordezkaritza, lanbide edo jarduera batean, ez publikoan ez pribatuan, ez beren kontura ez besteren kontura.

2. Aurreko idatz zatian xedatzen dena gorabehera, foru arau honetan ezartzen diren salbuespenak aplikatuko dira. Gainera, foru kargu publikodunek ez dute edukiko dedikazio eskusiboa Diputatuen Kontseiluak, interes publiko berezia aintzat hartuta, sektore publikoan beste postu batean aritzeko izendatuz gero; horrelakoetan, hala ere, ordainsari bat bakarrik jaso ahal izango dute.

### **23. artikulua. Ordainsari bakarra**

1. Foru kargu publikodunek ezin dute jaso ordainsari bat baino gehiago administrazio publikoan edo haien mendeko edo haiei lotutako erakundeen aurrekontuen kontura. Halaber, ezin dute jaso jarduera pribatuen ondoriozko ordainsaririk ere, foru arau honetan ezartzen diren salbuespenak gorabehera.

2. Foru arau honen ondorioetarako, kargu publikodunaren ordainsaria izendapenaren edo hautapenaren ondorioz aritzen den karguari dagokion ordainketa ekonomikoa da.

3. Ez dira ordainsaritzat joko zerbitzuak eragindako gastuen kalteordain gisa jasotzen dituzten zenbatekoak.

4. Eskubide pasiboen pentsioak eta Gizarte Segurantzaren pentsioak jasotzea bateraezina da arau honen aplikazio eremuko kargu publikoetan aritzearekin; salbuespenak: Gizarte Segurantzaren gaineko legerian sektore publikoko lanpostuekin bateragarritzat berariaz jotzen diren kargu publikoak. Bateraezintasuna gertatzen denean, pentsioa eten egingo da kargurako izendapena edo hautapena egiten denean.

#### **24. artikulua. Bateragarritasuna jarduera pribatuekin**

1. Foru kargu publikoan aritzea bateragarria izango da jarraian azalduko diren jarduera pribatuekin, baldin eta ez bada arriskuan jartzen kargu publikoaren inpartzialtasuna ez independentzia:

a) Norberaren edo familiaren ondarea administratze hutsa, 29. artikuluetan ezartzen diren mugak gainditu gabe.

b) Alderdi politikoetan aritzea eta kargua edukitzea.

c) Noizbehinka kongresu, jardunaldi, mintegi, ikastaro eta hitzaldietan parte hartzea, bai eta komunikabideetako mahai-inguru eta saioretan ere, baldin eta parte hartzea ez bada lan harremanen edo zerbitzuak egiteko kontratu baten ondorioa.

d) Literatura, arte, zientzia edo teknika arloetan sortutako edo produzitutako lanak merkatuzatzea eta argitaratzea, baldin eta lan harremanen edo zerbitzuak egiteko kontratu baten ondoriozkoak ez badira.

e) Ordainsaririk jaso gabe parte hartzea irabazteko asmorik gabeko fundazioetan, elkarteetan edo erakundeetan, eta gizarte baloreak sustatzen dituzten interes sozial edo kulturalako jardueretan aritzea.

2. Aurreko idatz zatian adierazitako jardueretan aritzeak ezin du eragotzi ez galarazi kargu publikoaren eginbeharrak eta betebeharrak zuzen eta zorrotz betetzea, eta ezin dio kalterik egin interes publikoari.

#### **25. artikulua. Bateragarritasuna jarduera publikoekin**

1. Foru kargu publikoan aritzea bateragarria izango da jarduera publiko hauekin:

a) Bidezko erakunde karguetan eta Diputatu Nagusiak edo Diputatuen Kontseiluak berariaz eskuduntza ematen duenetan jardutea.

b) Erakunde publikoetan aldi baterako misioak edo ordezkaritza lanak egitea.

c) Arabako Lurralde Historikoaren sektore publikoaren ordezkartzan aritzea erakunde edo sozietate publikoetako kide anitzeko organoetan, zuzendaritza organoetan edo administrazio kontseiluetan.

d) Arabako Lurralde Historikoaren sektore publikoaren ordezkartzan aritzea sozietate, fundazio, partzuergo eta erakunde pribatuetako zuzendaritza edo gobernu organoetan.

2. Aurreko idatz zatian arautzen diren kasuetan foru kargu publikodunek ez dute inolako ordainsaririk jasoko, agindutako ordezkartza lanak eragiten dituen gastuen kalteordainak izan ezik.

3. Organo, sozietate edo erakunde baten bileretan parte hartzeak edo haietan izateak dieta edo antzeko beste kontzeptu bat jasotzeko eskubidea onartuta badauka, hark zuzenean sartuko du zenbatekoa Foru Ogasunaren edo ordezkartzen duen foru sektore publikoko erakundearen diruzaintzan.

**26. artikulua. Bateragarritasuna herritarrak ordezkatzeko hautapen bidezko karguekin**

1. Foru kargu publikoen eta herritarrak ordezkatzeko beste kargu publiko batzuen arteko bateraezintasuna hauteskundeei buruzko legeetan finkatuko da.

2. Diputatuen Kontseiluko kideek karguan ez ezik Arabako Biltzar Nagusietako prokuradore modura ere jardun ahal izango dute, baina ezin dira izan Mahaiko kide.

Aitzitik, Foru Aldundiko eta beraren erakunde autonomo eta foru sozietate publikoetako goi kargudunak ezin dira izan Biltzar Nagusietako kide.

3. Foru kargu publikodunak, Diputatu Nagusia ez beste guztiak, toki erakundeetako hautetsiak eta alkateak izan daitezke, toki erakundeak indarreko legeriarekin bat etorritz dedikazio eskusiboa edo lanaldi partzial finkoa ezarrita daukanean izan ezik.

4. Kasu guztietan, foru kargu publikodunek artikulua honetan aipatzen diren jardueretako baten ordainsaria bakarrik jaso ahal izango dute, berariazko arautegiaren arabera beste jarduerari dagozkion dieta eta kalteordainak gorabehera.

**27. artikulua. Bateragarritasuna unibertsitateko irakaskuntzarekin eta ikerkuntzarekin eta langile publikoen prestakuntzarekin**

1. Foru kargu publikoetako eginkizunak bateragarriak izango dira unibertsitateko ikerkuntza eta irakaskuntza jarduera ordainduarekin, baldin eta kargudunen dedikazioaren kalterako ez bada eta, betiere, urtean hirurogei irakastordu gainditzen ez badira.

2. Halaber, aurreko idatz zatian ezarritako muga berekin, kargudunek parte hartu ahal izango dute administrazio publikoetako langileen prestakuntzarako zentro ofizialek antolatzen dituzten mintegi, jardunaldi eta hitzaldietan, baldin eta jarduera iraunkorra ez bada eta norberaren karguagatik, lanbide espezializazioagatik edota sektore publikoko administrazio antolaketa norberak daukan lekuagatik parte hartzen bada.

**28. artikulua. Bateragarritasun prozedurak**

1. 24. artikuluko c), d) eta e) letretan eta 25., 26. eta 27. artikuluetan azaltzen diren kasuetan jarduera publiko edo pribatuen bateragarritasunari edo bateraezintasunari buruzko berariazko adierazpena egin beharko da.

2. Diputatuen Kontseiluak ebatziko du jarduera publiko edo pribatuen bateragarritasunaz. Aldez aurretik Aldundiaren Idazkaritza Zerbitzuko titularrak txostena egingo du. Bateragarritasunari buruzko ebazpenak gardentasunaren araudian xedatzen denarekin bat etorritz argitaratu beharko dira.

3. Bateragarritasunaren inguruko ebazpenak emateko eta jakinarazteko gehieneko epealdia hogeita hamar egunekoa izango da bateragarritasuna eskatzen den egunetik aurrera. Epealdi hori espedientea instruitzen duen organoak administrazio prozedurari buruzko araudian ezartzen denaren arabera eskatuz gero luzatu ahal izango da.

**29. artikulua. Ondare mugak sozietateetako partaidetzetan**

1. Foru kargu publikodunek ezin dute eduki ehuneko hamarretik gorako zuzeneko ez zeharkako partaidetzarik Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoarekin edozein motatako itun edo kontraturen bat duten enpresetan, ez zuzenean ez tarteko pertsonen bidez, ez eta azpikontratista diren enpresetan eta foru sektore publikoko erakunderen baten dirulaguntza jasotzen duten enpresetan ere.

Artikulu honetan ezartzen denari dagokionez, tarteko pertsonatzat joko da kargudunaren kontura diharduen pertsona fisiko edo juridikoa.

2. Aurreko idatz zatian arautzen den debekua ez da aplikatuko baldin eta enpresa, sozietate edo erakunde hartzaileak betekizun objektibo orokor batzuk betetzen dituen kolektibo batekoa izateagatik jasotzen badu dirulaguntza, zenbait subjektoren arteko lehiaren bidezko administrazio prozedura batean parte hartu gabe.

Lehiaren bidezko administrazio prozeduretan ematen diren dirulaguntzak ere debeku horretatik salbuetsita daude, ebazpen proposamenak egiteko ahalmena daukan kide anitzeko organo tekniko baten proposamenari jarraituz ematen badira eta, betiere, ebazpena eman behar duen foru kargu publikodunak ez badu berak erabakitzen kide anitzeko organo horren osaera.

3. Kapital sozial harpidetua 600.000 eurotik gorakoa duten merkataritza sozietateen kasuan, 1. idatz zatian arautzen den debekua ehuneko hamarrera iristen ez den partaidetzari ere aplikatuko zaio, baldin eta partaidetzak enpresaren kapital sozialean kargudunari ematen dion posizioak modu nabarmenean baldintzatu badezake kargudunaren jarduna.

4. Foru kargu publiko baterako izendatzen duten pertsona batek aurreko idatz zatietan azaltzen diren partaidetzetako bat badauka, izendapen egunaren biharamunetik hiru hilabete pasatu baino lehen partaidetza hori besterendu beharko du edo dagozkion eskubideak laga beharko dizkio hirugarren pertsona independente bati, karguan egin behar duen aldirako. Karguan ari den bitartean jarauntsiz edo doako beste titulu batez partaidetza bat eskuratzen badu, eskuratzen duenetik hiru hilabete pasatu baino lehen besterendu edo laga beharko du.

Bai besterentze edo lagapen hori bai hirugarren pertsona independentearen identifikazioa jarduera, ondasun eta interesen erregistroei aitortu beharko zaizkie.

### **30. artikulua. Kargu publikoa utzi ondoko debekuak**

1. Foru kargu publiko batean aritutakoek kargua uzten dutenetik bi urte pasatu arte ezin izango diete inolako zerbitzurik egin karguko eginkizunetan aritu direnean eta eginkizun horien zioz zuzeneko harremanak izan dituzten enpresa, sozietate eta bestelako entitate pribatuei, ez eta horiekin lan edo merkataritza harremanik izan ere.

Debeku hori ukitutako entitate pribatuei eta sozietate talde bereko kide direnei aplikatuko zaie.

2. Hori dela eta, zuzeneko harremanak izan direla pentsatuko da baldin eta foru kargu publikodunak berak edo beraren mendeko organoek (ordezkaritzaz) edo, berak proposatuta, goragoko organoek ebazpenak eman badituzte enpresa, sozietate edo entitate horiei buruz, edo esku hartu badute, botoa emanez nahiz proposamenak aurkeztuz, haien inguruko erabakiren bat hartu duten organoetan.

3. Aurreko idatz zatian azaltzen den zuzeneko harremanen kontzeptua ez da aplikatuko enpresa, sozietate edo entitate hartzaileak betekizun objektibo orokor batzuk betetzen dituen kolektibo batekoa izateagatik jasotzen baditu aipatutako ebazpenak, zenbait subjektuen arteko lehiaren bidezko administrazio prozedura batean parte hartu gabe.

Administrazio prozedura tarteko izan denean ere ez da pentsatuko zuzeneko harremanik egon denik, baldin eta ebazpen proposamenak egiteko ahalmena daukan kide anitzeko organo tekniko baten proposamenari jarraituz erabaki bada eta, betiere, ebazpena eman behar zuen foru kargu publikodunak ez badu berak erabaki kide anitzeko organo horren osaera.

Halaber, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, sektore publikoko kontratuenak, 118. artikuluan arautzen dituen espedienteetan ere ez dago zuzeneko harremanik.

4. Foru kargu publikodunek artikulua honetako 1. idatz zatian aipatzen den epealdian ezin izango dute sinatu laguntza teknikoko, zerbitzuetako edo antzeko kontraturik Foru Aldundiarekin ez zerbitzuak (zuzenean zein enpresa kontratista edo azpikontratisten bitartez) egin dituzten foru sektore publikoko erakunde eta enprekin, zuzenean zein zeharka ehuneko hamarretik gorako partaidetza duten sozietate edo enpresen bitartez.

5. Kargu publikoa utzi ondoko bi urteetan kargudun ohiek jarduera batean hasi baino lehen haren adierazpena aurkeztu beharko dute.

**31. artikulua. Jardueren aitortpena**

1. Foru kargu publikodunek jarraian azalduko diren jarduera publiko eta pribatuen gaineko aitortpena egin behar dute, Aldundiak erregelamenduz onartzen dituen ereduetan:

a) Kargudunak foru sektore publikoarekiko zerbitzu harremanak hasten direnean edo karguan ari den bitartean zuzenean edo ordezkari nahiz ahalduen bitartez egiten dituen jarduerak.

b) Foru kargu publikoari dagozkion zerbitzu harremanak hasi aurreko bi urteetan egindako jarduerak.

c) Foru kargu publikoa utzi ondoko bi urteetan berak zuzenean edo ordezkari nahiz ahalduen bitartez egingo dituen jarduera pribatuak.

2. Aitortpenak Foru Kargu Publikodunen Jardueren Erregistroan aurkeztuko dira kargua hartzen edo uzten den egunetik hilabete pasatu baino lehen; halaber, aitortpena aurkeztu beharko da aitortutako datuetan aldaketaren bat gertatzen denetik hilabete pasatu baino lehen.

3. Kargu publikoari dagozkion zerbitzu harremanak hasi aurretik egiten diren edo hitzartuta dauden irakaskuntza eta ikerkuntza jardueri buruzko aitortpena harremanak hasten direnetik hilabete pasatu baino lehen aurkeztu beharko da.

**32. artikulua. Ondasun eta interesen aitortpena**

1. Foru kargu publikodunek beren ondareko ondasunen, eskubideen eta obligazioen aitortpena aurkeztu beharko dute Aldundiak erregelamenduz onartzen dituen ereduetan. Gutxienez honako hauek aitortu beharko dituzte:

a) Beren ondareko ondasunak, eskubideak eta obligazioak.

b) Balore edo finantza aktibo negoziagarriak.

c) Sozietateetako partaidetzak, eta partaidetutako sozietateen izena eta xede soziala; eta beste edozein sozietateren izena eta xede soziala, baldin eta aitortzaileak, aitortzailearen ezkontideak, ezkontzaren araubide ekonomikoa edozein dela ere, edo harekin antzeko afektibotasun harremanean bizi den pertsonak edota aitortzailearen mendean dauden ondorengoek eta tutoretzapeko pertsonak interesak badituzte sozietate horretan.

2. Ondare aitortpenarekin batera errentaren eta ondarearen gaineko zergen aitortpenen kopia aurkeztu beharko dituzte, hau da, zerbitzu harremanak hasten diren zergaldian eta aurrekoan legez egin behar izan dituzten aitortpenen kopia. Urtero aitortpen horien kopia eraman beharko dituzte Foru Kargu Publikodunen Ondasun eta Interesen Erregistrora, zerga aitortpenak Zerga Administrazioari aurkeztu ondoren hilabete pasatu baino lehen. Ezkontideek edo izatezko bikotekideek zerga horiez egindako aitortpenak ere aurkeztu ahal izango dira, nahi izanez gero.

3. Ondasun eta interesen aitortpena zerbitzu harremanak hasi edo amaitzen direnetik hilabete pasatu baino lehen aurkeztu behar da; halaber, epealdi bera egongo da aitortutako edukian gertatzen diren aldaketen aitortpena aurkezteko ere. Betebehar bera edukiko dute foru kargu publikoa utzi ondoko bi urteetan.

4. Aitortpena aurkeztu behar duenarekin bizi den pertsonak edo ezkontideak eta lehen graduko odol ahaideak, nahi izanez gero, ondasun eta interesen aitortpena egin eta erregistro egokian aurkeztu ahal izango dute.

## V. KAPITULUA

## FORU ARAU HONETAN EZARTZEN DIREN BETEBEHARREN KUDEAKETA ETA KONTROLA

**33. artikulua. Administrazio kudeaketaren ardura daukan organoa**

1. Bateraiezintasun araubidearen eta foru arau honetan kargu publikoei ezarritako betebeharren kudeaketa administratiboa Aldundiaren Idazkaritza Orokorreko Zerbitzuaren ardura izango da.

2. Halaber, organo horri dagokio Foru Kargu Publikodunen Jardueren Erregistroa eta Foru Kargu Publikodunen Ondasun eta Interesen Erregistroa kudeatzea. Artxibatutako eta idatzohartutako agirien eta datuen zaintza eta segurtasuna haren ardura izango dira.

Erregistro horiek dokumentuak kudeatzeko euskarri batean gordeko dira. Euskarri horrek datuen aldaezintasuna eta iraupena bermatuko ditu, bai eta datuak eskuratu eta erabiltzeko segurtasun handia ere.

3. Zerbitzu horrek jasoko ditu Arau honen 21.4 artikuluan ezarritakoaren arabera emandako abstentzio-egiaztagiriak.

#### **34. artikulua. Foru Kargu Publikodunen Jardueren Erregistroa**

1. Foru Kargu Publikodunen Jardueren Erregistroaren xedea arau honetako 31. artikuluan aipatzen diren jardueren aitorpenak gordetzea da.

2. Erregistro hori publikoa da, eta bertara sartzea foru arau honen bidez eta berau garatzen duten xedapenen bidez arautuko da, alde batera utzi gabe honako lege hauetan xedatzen dena: abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, datu pertsonalen babesarena; otsailaren 25eko 2/2004 Legea, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta datuak babesteko euskal bulegoa sortzeari buruzkoa; administrazio prozedura erkidearen oinarritzko araudia; abenduaren 9ko 19/2013 Legea, gardentasun, informazio publikoaren eskuragarritasun eta gobernamentu onarena.

3. Erregistro horretan gordetako aitorpenen berri jakin nahi duten pertsonak horien edukari buruzko ziurtagiria eskatu ahal izango dute. Horretarako aurretik beren burua identifikatu beharko dute eta argi eta azaldu beharko dute zein den kargu publikoa, zer datu eskatzen duten eta zergatik. Ez da inoiz onartuko eskaera generikorik, ez eta informazioa eskatzen den karguaren titularrak argi eta garbi identifikatuta ageri ez den eskaerarik ere.

4. Erregistroko datuen ziurtagiriak ematea Aldundiaren Idazkaritza Orokorreko titularrari dagokio. Ziurtagiriok Erregistroan gordetzen diren jatorrizko aitorpenen kopia kautotuak izan daitezke, administrazio prozedura erkidearen oinarritzko araudiak ezartzen duenarekin bat etorritik.

#### **35. artikulua. Foru Kargu Publikodunen Ondasun eta Interesen Erregistroa**

Ondasun eta Interesen Erregistroan erregistratuko dira 32. artikuluan arautzen diren aitorpenak. Erregistro publikoa da, eta Aldundiaren Idazkaritza Orokorreko titularrak aginduko du ALHAOn eta Arabako Foru Aldundiaren web orrian argitara dadila bertan jasotako aitorpenen edukia, foru arau honen eranskinean dagoen ereduaren arabera. Zehaztasun hauek argitaratuko dira nahitaez:

- Ondasun higieziari dagokienez: izaera, ezaugarriak eta katastro balioa.
- Banku gordailuei dagokienez: aitorpenaren egunean dagoen saldoa.
- Ondasun eta eskubide indibisioez: aitortzailearen partaidetzaren ehunekoa.

#### **36. artikulua. Egiaztapena eta informazioa**

1. Aurreko artikuluan xedatzen dena gorabehera, Foru Aldundiaren Idazkaritza Orokorrek jakiten duenean jardueren eta ondasun eta interesen aitorpena aurkeztu behar duen pertsona batek kargu bat hartu edo utzi duela, errekerimendua egingo dio betebeharrak betetzeko.

2. Jardueren eta ondasun eta interesen aitorpena aurkeztu behar duten foru kargu publikodunek beren aitorpenak zuzenean aurkeztu beharko dituzte Foru Aldundiaren Idazkaritza Orokorrean, edo bestela zerbitzu horretara bidali gutun azal itxi eta independenteetan (ondasun eta interesen aitorpenak edukia isilpean mantentzeko modukoak izan behar dira).

Aldundiaren Idazkaritza Orokorreko langileek aitorpen bakoitza noiz aurkeztu den ezarriko dute gutun azaletan.

3. Aitorpena behar den erregistroan inskribatu eta gero Aldundiaren Idazkaritza Orokorreko titularrak erregistroan egindako idazpenaren kopia bidaliko dio aitortzaileari hartu agiri gisa.

4. Arabako Foru Aldundiak sei hilean behin Arabako Biltzar Nagusiei azalduko die zenbateraino bete dituzten foru kargu publikoek arau honetan ezartzen zaizkien betebeharrak. Azalpenean ondoko datuak zehaztuko dira, gutxienez:

- a) Zenbat foru kargu publikodunek egin behar duten aitorpena.
- b) Jasotako adierazpenen kopurua, zein motatako adierazpenak diren azalduta.
- c) Zenbat kargu publikodunek ez duten bete aitorpena aurkeztu beharra, eta nortzuk diren.

5. Aitorpena egin beharra sortu duen kargua edo zeregina uzten den egunetik lau urte igarotakoan Foru Aldundiaren Idazkaritza Orokorrek haren idazpenak ezeztatuko ditu ofizioz, ALHAOn datu horietarako sarbidea blokeatuko du eta erregistroetan gordetako dokumentazioa interesdunari itzuliko dio. Interesdunak bi hilabetean dokumentazioa jasotzen ez badu, suntsitzeko aginduko da. Interesdunak berak ere eska dezake suntsitzeko.

## VI. KAPITULUA

### ZEHAPEN ARAUBIDEA

#### **37. artikulua. Arau hausteak**

1. Foru arau honen ondorioetarako, arau hauste oso larriak dira:

a) Foru kargu publikodunen jokabide kodea eratzen duten printzipio orokorrak, III. kapituluari aipatzen direnak, ez betetzea.

b) Bateriaezintasunei buruzko arauak, IV. kapituluari aipatzen direnak, ez betetzea.

c) Datu edo dokumentu faltsuak dituzten aitorpenak aurkeztea.

2. Arau hauste larriak dira:

a) Jarduerak eta ondasun eta interesak Erregistroan ez aitortzea, hori egiteko errekerimenduaren ondoren.

b) Arau honetan ezartzen denaren arabera aurkeztu behar diren datu eta dokumentuak nahita ez aurkeztea.

c) Abstenitu beharra ez betetzea.

d) Gardentasunaren arloan behin eta berriz ez betetzea publikotasun aktiboaren betebeharra eta informazio publikoa eskuratzeko eskaerak epealdiaren barruan ebatzi beharra.

3. Arau hauste arinak dira:

a) Jardueren edo ondasun eta interesen aitorpena epez kanpo aurkeztea erregistroetan, horretarako ohartarazpena jaso ondoren.

b) Gardentasunaren Foru Arauan aipatzen den informazioa argitaratu beharra ez betetzea.

c) Ez betetzea, justifikaziorik gabe, informazio publikoa eskuratzeko eskaerak epealdiaren barruan ebatzi beharra.

4. Jardueren edo ondasun eta eskubideen aitorpena ezarritako epealdietan ez aurkeztea ez da arau hauste izango, baldin eta Idazkaritza Orokorreko Zerbitzuak errekerimendua egin ondoren akats hori zuzentzen bada horretarako emandako epealdian.

#### **38. artikulua. Zehapenak**

1. Arau hauste larrien eta oso larrien zehapena hauxe izango da: Foru Araua betetzen ez dela adieraztea eta, bidezko ebazpenak irmotasun administratiboa hartutakoan, adierazpen hori ALHAOn argitaratzea.

2. Arau hauste oso larriari dagokion zehapenak, gainera, honako ondorio hauek ekarriko ditu:

a) Arau haustea egin duena kargu publikotik kentzea, dagoeneko utzi ez badu.

b) Bidegabe jaso dituen diru kopuruak itzuli beharra. Diru kopuruok ehuneko hamar, gehienez, handitu ahal izango dira, baldin eta itzulketa hilabeteko epean egiten ez bada, zehapen espedientearen ebazpena jakinarazten denetik hasita.

3. Kapitulu honetan xedatzen denak ez du eragotziko sortzen diren gainerako erantzukizunak eskatzea. Horrela bada, beste erantzukizun batzuen zantzurik izanez gero, Aldundiaren zerbitzu juridikoei aginduko zaie behar diren ekintzak bideratzeko.

4. Arau haustek delitu edo falta penal izan badaitezke, Aldundiak Fiskaltzari jakinarazi beharko dizkio egitateak, eta bere esku dituen agiri guztiak eman beharko dizkio. Halaber, prozedura bertan behera utziko du harik eta epaileak prozesu penala amaiazzten duen ebazpena eman arte.

5. Arau hauste arinei dagokien zehapena ohartarazpena da.

### **39. artikulua. Zehatzeko prozedura**

1. Prozedura kontraesaneko espedienteen bideratuko da, zehapenak jartzeko administrazio prozedura erkidearen oinarritzko araudiak ezartzen duenarekin bat etorritz.

2. Kasuan kasuko foru kargu publikodunaren izendapena proposatu zuen saileko titularrak izango du eskumena zehapen prozedura has dadila agintzeko, karguduna Diputatuen Kontseiluko kide denean izan ezik, horrelakoetan Diputatuen Kontseiluari berari baitagokio espedientea abian jartzea.

Edonola ere, Aldundiaren Idazkaritza Orokorreko Zerbitzuari dagokio horrelako zehapen espedienteen instrukzioa.

3. Diputatuen Kontseiluari dagokio hutsegite larri eta oso larriengatik zehapenak ezartzea. Hutsegite arinengatik zehapenak ezartzea Diputatu Nagusiari dagokio.

4. Ezartzen diren zehapenak Arabako Biltzar Nagusiei jakinaraziko zaizkie.

### **40. artikulua. Preskripzioa eta iraungitzea**

Zehapen prozeduraren preskripzio eta iraungitze araubidea zehapenak jartzeko administrazio prozedura erkidearen oinarritzko araudiak ezartzen du.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

Lehenengo xedapen gehigarria. Foru kargu publikoen katalogoa onartzea.

Foru arau honek indarra hartzen duenetik hasita hilabeteko epean, Diputatuen Kontseiluak foru kargu publikoen katalogoa, 3. kapituluaren aipatzen dena, onartuko du.

Bigarren xedapen gehigarria. Izendapenak jakinarazi beharra.

Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko erakundeek, sozietateek eta gainerako entitateek arau honen aplikazio eremuko karguetarako izendapenak jakinarazi beharko dizkiote 33. artikuluan aipatzen den organoari.

Hirugarren xedapen gehigarria. Aurretik foru enplegu publikoan izan diren Diputatuen Kontseiluko kideak eta goi mailako foru kargudunak.

1. Diputatuen Kontseiluko kide edo goi mailako foru kargudun izendatu aurretik Arabako Foru Aldundiko edo foru erakunde autonomo edo sozietate publikoetako karrerako funtzionario edo lan kontratupeko langile finko izan direnak funtzionarioen edo lan kontratupekoen legerian ezartzen den egoera administratibora edo lan eszedentziara pasatuko dira karguaz jabetu ondoren. Indarrean dagoen araudian aitortzen zaizkien eskubideak onartuko zaizkie. Beti ere, jatorrizko administrazioan edo erakundearen onartuta duten antzinatean osagarria jasoko dute eta lanpostua gordeko zaie.

2. Diputatuen Kontseiluko kideren bat edo goi mailako foru kargudunen bat, izendapenaren aurretik, Arabako Foru Aldundiko, haren erakunde autonomoetako edo foru sozietate publikoetako lanpostu batean izan bada, eta lanpostu horretako ordainsaria, edo berari berariaz aitortu diotena, handiagoa izan bada aurrekontu betearazpenari buruzko araudian horrelako karguetarako ezarritako ordainsari orokorra baino, lehengo ordainsaria jasotzen jarraitu ahal izango du.

3. Diputatuen Kontseiluko kide edo goi mailako foru kargudun izendatu aurretik Arabako Foru Aldundiko edo haren erakunde autonomoetako karrerako funtzionario izan direnak duten lanpostuaren hurrengo mailara pasatuko dira Kontseiluan edo goi mailako karguan bi urtean jarraian edo hiru urtean etenka lan egiteagatik. Nolanahi ere, ezin igo izango dira beren funtzionario taldearen gorengo maila baino gorago.

Laugarren xedapen gehigarria. Behin-behineko langileak.

1. Diputatu Nagusiak eta foru diputatuek beren saileko behin-behineko langileen izendapenak eta kargu uzteak proposatuko dizkiote Diputatuen Kontseiluari, lanpostuen zerrendan ageri diren mota horretako lanpostuetarako.

2. Izendatzeko erabakian edo kargua kentzeko erabakian ezartzen den egunean hasiko edo amaituko dira behin-behineko langileen zerbitzu harremanak. Erabaki horiek ALHAOn argitaratuko dira. Konfiantzazko lanak egiten edo aholkuak ematen zaizkion kargudunak kargua uzten badu, egun berean behin-behineko langileak ere lanpostua utzi beharko du. Foru Administrazioak berariazko ebazpena emango du interesdunarentzat.

3. Langile horiek konfiantzazko lanetan edo aholkularitza berezian baino ezin dute jardun.

4. Behin-behineko langileentzat erreserbatutako lanpostuen kopurua Foru Aldundiak adieraziko die Batzar Nagusiei agintaldi bakoitzaren hasieran.

Langile horien kopurua, ezaugarriak eta ordainsariak Arabako Foru Aldundiaren langileen plantillan agertu beharko dira.

5. Behin-behineko langile izendatu aurretik Arabako Foru Aldundiko edo foru erakunde autonomo edo sozietate publikoetako karrerako funtzionario edo lan kontratupeko langile finko izan direnak funtzionarioen edo lan kontratupekoen legerian ezartzen den egoera administratibora edo lan eszedentziara pasatuko dira lanpostuaz jabetu ondoren. Indarrean dagoen araudian aitortzen zaizkien eskubideak onartuko zaizkie. Beti ere, jatorrizko administrazioan edo erakunde onartuta duten antzintasun osagarria jasoko dute eta lanpostua gordeko zaie.

Behin-behineko langileren bat izendapenaren aurretik Arabako Foru Aldundiko lanpostu batean izan bada eta lanpostu horretako ordainsaria, edo berari berariaz aitortu diotena, handiagoa izan bada aurrekontu betearazpenari buruzko araudian horrelako lanpostuetarako ezarritako ordainsari orokorra baino, lehengo ordainsaria jasotzen jarraitu ahal izango du.

6. Administrazio publikoen zerbitzuan lan egindako aldi konputagarriei dagozkien antzintasun ordainsariak ere jasoko dituzte (baldintzak eta kopuruak foru funtzionarioenak izango dira).

7. Behin-behineko langileei Arabako Foru Administrazioaren zerbitzuko langileentzat ezarritako bateraezintasun araubidea aplikatuko zaie.

Foru langileen gizarte onurak gozatzeko eskubidea edukiko dute. Horretarako, kontuan izango da Arabako Foru Aldundiko edo horren erakunde autonomo edo sozietate publikoetako langile finko diren ala ez; hau da, karrerako funtzionario edo lan kontratupeko langile finko direnek karrerako funtzionarioen prestazio berak edukiko dituzte eta gainerakoek bitarteko funtzionarioei edo aldi baterako langileei dagozkienak.

8. Behin-behineko langile izendatu aurretik Arabako Foru Aldundiko edo haren erakunde autonomoetako karrerako funtzionario izan direnak duten lanpostuaren hurrengo mailara pasatuko dira lanpostu horretan hiru urtean jarraian edo lau urtean etenka lan egiteagatik. Nolanahi ere, ezin igo izango dira beren funtzionario taldearen gorengo maila baino gorago.

Bosgarren xedapen gehigarria. Goi mailako foru kargudunen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren aitortpenak ikuskatzea.

Sail bakoitzak urtero prestatzen dituen ikuskapen planean kontuan edukiko dira foru kargu publikodunen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren aitortpenak.

#### XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengo xedapen iragankorra. Foru arau hau indarrean jarri aurretik izendatutako foru kargu publikodunek nahitaez aurkeztu beharreko aitortpenak.

Arau hau indarrean jarri aurretik jardueri buruzko adierazpena eta ondasunei eta interesei buruzko adierazpena aurkeztu duten foru kargu publikodunek ez dute aurkeztu behar beste aitortpenik.

Bigarren xedapen iragankorra. Arau hau indarrean jarri aurretik baimendutako bateragarritasunak.

1. Arau honetako 33. artikuluan aipatzen den organoak araua indarrean jarri aurretik jarduerak egiteko emandako bateragarritasun baimen guztiak aztertuko ditu, arauarekin bat datozen egiaztatzeko.

2. Baldin eta uste bada arau hau indarrean jarri aurretik bateragarri moduan baimendutako jardueraren bat arauan ezartzen denaren aurkakoa dela, idatzi arazoitu bat bidaliko zaio interesdunari eta epealdi bat emango zaio bere iritzia aurkezteko. Horren ondoren irizpide berari eusten bazaio, hau da, baimendutako jarduera ez dela bateragarria arau honen arabera, horri buruzko txostena aurkeztuko zaio 30. artikulua xedatzen duenaren arabera eskumena daukan organoari, eta organo horrek bateraezintasuna adieraziko du. Adierazpenak interesdunari jakinarazten zaionetik sortuko ditu ondorioak.

Hirugarren xedapen iragankorra. Erregelamenduzko xedapenen indarraldia.

Arau hau erregelamenduz garatzen ez den bitartean (eta gehenez sei hilabetean indarrean jartzen denetik) ondoko dekretu hauek indarrean iraungo dute, hain zuzen ere foru arau honen aurka ez dauden heinean:

a) Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 10eko 60/2008 Foru Dekretua, Diputatu Nagusiaren, foru diputatuen eta Arabako Foru Aldundiko goi kargudunen jardueren aitortpena eta ondasun eta interesen aitortpena aurkezteko prozedura eta ereduak onartzen dituena.

b) Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 2ko 51/2010 Foru Dekretua, ondasun eta interes aitortpenei buruzko fitxategia sortzen duena 6/2010 Foru Arauan xedatutakoari jarraituz (horren bidez Jardueren eta Ondasun eta Interesen Erregistroak arautzen dituen 7/2008 Foru Araua aldatzen da) eta maiatzaren 30eko 40/2006 Foru Dekretuan jasotako fitxategi bat ezabatzen duena.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten dira arau honetan xedatzen denari aurka egiten dioten maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak; bereziki, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauko, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoareneko, I. tituluko II. kapituluko laugarren atala, I. tituluko III. kapituluko laugarren atala eta 114. artikulua; otsailaren 21eko 4/2000 Foru Araua, Arabako Foru Aldundiko eta haren foru erakunde autonomo eta sozietate publikoetako goi kargudunen eta Arabako Foru Aldundiko behin-behineko langileen araubidea ezartzen duena; otsailaren 18ko 7/2008 Foru Araua, Arabako Foru Aldundiko Jardueren Erregistroa eta Ondasun eta Interesen Erregistroa arautzen dituena; uztailaren 12ko 6/2010 Foru Araua, lehenengo aldaketa egiten diona Arabako Foru Aldundiko jardueren eta ondasun-interesen erregistroak arautzen dituen otsailaren 18ko 7/2008 Foru Arauari.

**AZKEN XEDAPENAK**

Azken xedapenetatik lehen. Abenduaren 18ko 52/1992 Foru Araua, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearena, aldatzea.

Bat. Abenduaren 18ko 52/1992 Foru Araua, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearena, aldatzen da, 74. artikuluko 3. idatz zatia, hain zuzen ere; hauxe da testu berria:

**“74. artikulua**

(...)

3. Zuzendarien kopurua, dedikazio eta lansariak agintaldi bakoitzaren hasieran jakinaraziko zaizkie Batzar Nagusiei.”

Bi. Abenduaren 18ko 52/1992 Foru Araua, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearena, aldatzen da, 114. artikulua hain zuzen ere; hauxe da testu berria:

**“114. artikulua**

Goi mailako karguen eta behin-behineko langileen kopurua, ordainsari araubidea eta dedikazio araubidea agintaldiaren hasieran jakinaraziko zaizkie Batzar Nagusiei. Hori egiteko modua berriazko foru arau batean zehaztuko da.”

Azken xedapenetatik bigarrena. Arauak emateko gaikuntza.

Diputatuen Kontseiluari ahalmena ematen zaio foru arau honetan ezartzen dena garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

Azken xedapenetatik hirugarrena. Indarrean jartzea.

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailaren 11

*Presidente*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**